

## BIDAIA LAGUNTZAKO 244.921 POLIZAKO BALDINTZEN LABURPENA GAZTEKUTXA ETA GAZTETXARTELA TXARTELEN TITULARRENTZAT

Aseguru honen bermeetan sartzen diren zerbitzuak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da aseguratuak jaso nahi dituela adieraztea, horretarako, ondorengo telefono honetara deituz horri buruzko zerbait gertatzen zaiola unean bertan (hartzaileak ordaintzeko deia egin dezake. 24 orduz etenik gabeko zerbitzua)

Espainiatik: **902.100.728** - Beste herrialde batetik: **+34 91.594.96.74**

Laburpen hau informaziorako bakarrik da, eta gatazka edo auziren bat izanez gero, Polizaren Baldintza Orokorretan eta Partikularretan xedatutakoari jarraituko zaio.

### BERMEAK

CASER, S.A.ren eta UNACSA-RACEren artean kontratatutako baldintzekin bat, ASEGURATUAK tituluaren deskribatutako pertsonen prestazio hauek jasotzeko eskubidea izango dute:

### AURRETIAZKO XEDAPENAK

Poliza honen ondorioetarako hau da hitz on esanahia:

**ASEGURATZAILEA.-** CASER. Horrek hartzen du bere gainkontratu honetan sartzen diren arriskuaren estaldura eta kontratuan azaltzen diren prestazioak bermatzen ditu; UNACSA-RACE da kontratu honetan bermatutako zerbitzuak ematen dituen erakundea.

**ASEGURU-HARTZAILEA.-** GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA.

**ASEGURATUAK.-** Aseguratutak hartuko dira Aseguru Kolektiboaren Hartzailearen bezero eta GAZTEKUTXA eta GAZTETXARTELA txartel baten jabe diren titular guztiak.

**ASEGURATUTAKO TXARTELA.-** GAZTEKUTXA eta GAZTETXARTELA te.

**ASEGURUAREN EREMUA.-** Berme honek Espainian izango du balioa, ASEGURATUAREN ohiko etxetik edo bizilekutik hasi eta 30 kilometroko erradio batetik kanpora, eta munduko gainerako lekuetan.

**BERMEEN EFEKTUA ETA IRAUPENA.-** Aseguru honetako bermeek Aseguratuak estaldura eremu geografikoaren barruan egiten dituzten joaneko, egoneko eta itzuliko desplazamendu guztietan izango dute efektua. Bermeek ez dute efekturik izango ondoko ondoko 90 egunetik gorako egonaldietan.

### ESTALITAKO BERMEAK

#### A. LAGUNTZA MEDIKOA ETA ABERRIRATZEA:

##### A.1. ZAURITUEN EDO GAIXOEN ABERRIRATZEA EDO OSASUN-GARRAIOA.

Kasu bakoitzaren larritasunaren edo larrialdiaren arabera, ASEGURATZAILEAK bere gain hartuko du ASEGURATUAREN garraioa, baita zainza medikopean ere, hala behar baldin bada, Espainiako ospitale batean ingresatu arte, bere bizilekutik hurbil, edo bere ohiko bizilekura eraman arte, ospitalizaziorik behar ez duenean. Bere bizilekutik gertuko ospitale batean ingresatzerik lortuko ez balitz, ASEGURATZAILEAK bere gain hartuko du ASEGURATUA, bere garaian, bere etxera eramateko ardua:

Garraioa:

- Osasun-hegazkin berezia Europako herrialdeen edo Mediterraneo itsasoarekin muga egiten duten herrialdeen kasuan.
- Linea erregularretako hegazkina, tren edo itsasontzia.
- Anbulantzia.

Aberriratzeko beharrik eragiten ez duten gaitz onairen edo zauri arinen kasuan, ambulanzia edo beste edozein garraioa erabiliz eramango da, zainza egokia eskaini ahal izango den lekuraino.

ASEGURATZAILEAK ez ditu inongo larrialdietako sorosten-erakundeak ordetzuko eta ez du zerbitzu horien kostua bere gain hartuko.

Edozein kasutan, beste leku batera eraman edo ez erabakitzea ASEGURATZAILEAK kasu bakoitzean izendatutako medikuari dagokio, aldez aurretik aseguratzaleari kontsultatu ondoren, ASEGURATUA tratatzen duen medikuarekin adostuta, eta hala dagokionean, familiarekin kontsultatuta.

##### A.2. HILDA GERTATUTAKO ASEGURATUAREN ABERRIRATZEA EDO GARRAIOA.

ASEGURATUA bidaiaren zehar HILTZEN BADA, ASEGURATZAILEA arduratuko da izapide guztiez, eta beharrezkoak eta derrigorrezkoak diren baliabideak jartzeaz, baldintza legalak eta administratiboak betez, eta bere gain hartuz HILDAKOA bere ohiko bizilekura eramateak eragiten dituen gastuak, baita balsamatzearen eta zink erako hilxutxaren gastuak ere.

##### A.3. LAGUNTZAILEEN ABERRIRATZEA EDO GARRAIOA.

Aseguratuak aurreko bermeetan (1 eta 2) deskribatutako arrazoietakoren bat dela-eta etxera itzuli denean, eta hori beste bidelagunentzat bidaia hasieran

pernatutako baliabideekin jarraitzeko eragozpena denean, aseguratuak bere gain hartuko du beste bidaiariak beren ohiko bizilekura eramateko garraioaren erantzukizuna.

Laguntzaileen desplazamendu-gastuei dagokienez, haiek normaltasunez aurreikusitako gastuen gainetik geratzen direnak bakarrik hartuko ditu Aseguratuak bere gain (tren eta hegazkinetako txartelak, itsas zeharkaldiak, etab.).

##### A.4. ADINGABEEN ABERRIRATZEA EDO GARRAIOA.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, aseguratuarekin batera doazen pertsonak aseguratu horren 15 urtetik beherako seme-alabak balira eta bidaiaren aurrera jarraitzeko familiarterekin edo konfiantzazko beste inor ez balute, Aseguratuak, familiak hala eskatuta, pertsona bat jarriko du haiei bidaiaren laguntzeko, hildakoa lurperatu behar den lekuraino edo Espainiaraino, beren etxeraino.

Adingabeen desplazamendu-gastuei dagokienez, haiek normaltasunez aurreikusitako gastuen gainetik geratzen direnak bakarrik hartuko ditu Aseguratuak bere gain (tren eta hegazkinetako txartelak, itsas zeharkaldiak, etab.).

##### A.5. GASTU MEDIKOA, KIRURGIKOAK, FARMAZEUTIKOAK ETA OSPITALIZAZIOKO GASTUAK ORDANTZEA EDO ITZULTZEA.

Berme honen bidez, ASEGURATZAILEAK bere gain hartukoditu ASEGURATUARI bidaiaren eta estaldura honen balio-epaeraren barruan gertatzen zaiola izarri edo aurrez ikusi ezinako gaixotasun baten ondorioz sortzen zaizkion gastuak, 300 €-ko mugaraino Espainiaren barruan, eta 3.000 €-raino atzerrian.

Hemen aipatzen diren gastu-ordainak horiek, hala ere, ASEGURATUAK jasotzeko eskubidea duen beste kopuru batzuen osagarriak izango dira beti, dela Gizarte Seguratzaren prestazioengatik edo afiliaturik dagoen beste aurreikuspen-erregimen batengatik jasotzeko eskubidea duenean.

Beraz, ASEGURATUA konprometitzen da erakunde horietatik gastuak kobratzeko egin behar diren izapide guztiak egitera eta ASEGURATZAILEARI berak aurreratutako diru guztiak **itzultzera**.

##### A.6. ODONTOLOGIAKO GASTUAK.

Larrialdiko odontologia-gastuak 60 €-ra mugatzen dira.

##### A.7. HOTEL BATEAN EGONALDIA LUZATU BEHARREKO GASTUAK.

Gaixo edo zaurituta dagoen aseguratuaren egoera etxera ezin itzuli ahal izateko modukoa bada, tratatzen duen medikuak hala uste duelako, eta Aseguratuak izendatutako medikuak ere bai, Aseguratuak bere gain hartuko ditu hotelean egon behar duen denbora luzatzeagatik sortzen diren gastuak, egunean 45 €-raino eta, gehienez ere, 10 eguneko mugarekin.

##### A.8. LAGUNTZAILE BATEN DESPLAZAMENDUA ASEGURATUAK 5 EGUNETIK GORA OSPITALIZATUTA EGON BEHAR DUENEAN.

Gaixo edo zaurituta dagoen aseguratuaren egoera berehala ezin aberriratu edo itzuli ahal izateko modukoa bada, eta bera aurkitzen den lekuan 5 egun baino gehiago ospitalizatuta egon behar badu, Aseguratuak bere gain hartuko du: trenean (1. klasean) edo hegazkinean (turista klasean) bidaltzeko joan-etorriko txartel bat, aseguratuaren familiarterekin bat edo berak izendatutako beste pertsonaren bat ospitalizatuta dagoenaren ondora joateko.

##### A.9. ATZERRIRA DESPLAZATUTAKO LAGUNTZAILEAREN EGONALDIA, ASEGURATUAREN 5 EGUNETIK GORAKO OSPITALIZAZIO-KASUETAN.

Aurreko bermean aipatzen den atzerrian ospitalizatu behar hori gertatuko balitz, laguntzailearen egonaldi-gastuak ordainduko dira gainera, bidezkoak diren ordainagiriak aurkeztuz, egunean 45 €-raino eta, gehienez, 10 eguneko mugarekin.

##### A.10. GARAIZ BAINO LEHENAGOKO ITZULKETA, FAMILIARTEKOREN BAT ESPAINIAN HIL EDO OSPITALIZATU DELAKO.

Bermeetan sartzen den bidaiaren batean gertatuko balitz bitarte horretan Espainian aseguratuaren ezkontidea edo aurreko edo ondorengo lehen mailako ahaideren bat hiltzea edo ospitalizatzera, bermean sartuko dira garraio publikoa erabiliz bidaiari bere ohiko bizilekura lehenago itzultzeagatik sortzen zaizkion aparteko gastuak.

#### **A.11. ETXEAN GERTATUTAKO EZBEHAR LARRI BATENGATIK LEHENAGO ITZULI BEHARRA.**

Aseguratua bidaian dagoen bitartean bere etxean gertatuko balitz bertan bizi ezin izateko moduko ezbeharen bat, Aseguru etxeak aseguratuaren esku jarriko du treneko (lehenengo klasean) edo hegazkineko (turista klasean) txartel bat, bera aurkitzen den lekutik etxeraino etortzeko, eta beste txartel bat lehen zegoen lekura berriro itzultzeko.

#### **A. 12. POST MORTEM GASTUAK.**

Bermean estalita geratzen dira gorpua prestatzeko egin behar izaten diren gastu osagarriak, hala nola, baltsamatzaerenak eta legearen arabera garraiatzeko beharrezkoa den hilkutxarenak, 601 €-ko mugarekin.

#### **A.13. ATZERRIAN LEGEZKO DEFENTSA EGITEKO GASTUEN AURRERAKINA.**

Istripu baten ondorioz gertatuko balitz Aseguratuak bere legezko defentsa kontratatu behar izatea, defentsa horren gastuak aurreratuko ditu Aseguru etxeak, 601 € arte.

Defentsa egin behar den herrialdeko legeriaren arabera baldintzatuta geratuko da aurrerakin hori.

Aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa bermatzeko, Aseguratuak berretzat gordetzen du aurrerakina egin aurretik Aseguratuak Espainian izendatutako pertsona edo erakunde batek aurrerakin hori sinesgarritasunez (banku-taloi, eskudiruro edo zor-aitorpen baten bidez) berma dezala eskatzeko eskubidea. ASEGURATUALEAK zor-aitorpen bat egitea aukeratuko balu, ASEGURATUA behartuta geratzen da ASEGURATUALEAK aurreratutako zenbatekoa itzultzera bidaia bukatzen denetik gehienez 10 egunera, edota, nolana ere, aurrerakina egin ondorengo 2 hilabeteen barruan beti.

#### **A.14. FIDANTZA JUDIZIALAREN AURRERAKINA ATZERRIAN.**

Istripu baten ondorioz, istripua gertatu den herrialdeko autoritateek aseguratuari fidantza penal bat eskatzen badiote, aseguratuak horretarako behar den kopurua aurreratuko du, 4.808 €-ko mugaraino.

Fidantza egin behar den herrialdeko legeriaren arabera baldintzatuta geratuko da aurrerakin hori.

Aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa bermatzeko, Aseguratuak berretzat gordetzen du aurrerakina egin aurretik aseguratuak Espainian izendatutako pertsona edo erakunde batek aurrerakin hori sinesgarritasunez (banku-taloi, eskudiruro edo zor-aitorpen baten bidez) berma dezala eskatzeko eskubidea.

Aseguratuak zor-aitorpen bat egitea aukeratuko balu, aseguratu behartuta geratzen da Aseguratuak aurreratutako zenbatekoa itzultzera bidaia bukatzen denetik gehienez 10 egunera, edota, nolana ere, aurrerakina egin ondorengo 2 hilabeteen barruan beti.

ASEGURATUALEAK zor-aitorpen bat egitea aukeratuko balu, ASEGURATUA behartuta geratzen da ASEGURATUALEAK aurreratutako zenbatekoa itzultzera bidaia bukatzen denetik gehienez 10 egunera, edota, nolana ere, aurrerakina egin ondorengo 2 hilabeteen barruan beti.

#### **A.15. OSPITALEKO FIDANTZAREN AURRERAKINA ATZERRIAN.**

Aseguratua istripu edo gaixotasun larri batengatik ospitale batean ingresatu behar izatea gertatuz gero, Aseguratuak aurreratuko du ospitaleko aseguratu onartzeko eska dezakeen fidantza ordaintzeko behar den dirua.

Fidantza egin behar den herrialdeko legeriaren arabera baldintzatuta geratuko da aurrerakin hori.

Aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa bermatzeko, ASEGURATUALEAK berretzat gordetzen du aurrerakina egin aurretik ASEGURATUALEAK Espainian izendatutako pertsona edo erakunde batek aurrerakin hori sinesgarritasunez (banku-taloi, eskudiruro edo zor-aitorpen baten bidez) berma dezala eskatzeko eskubidea.

ASEGURATUALEAK zorraren onarpena aukeratzen badu, ASEGURATUALEAK bidaia amaitzen denetik hamar eguneko epean itzuli beharko du ASEGURATUALEAK emandako aurrerakinaren zenbatekoa, eta edozein kasutan aurrerakina eman zen egunetik hasi eta hurrengo 2 hilabeteen barruan.

#### **A.16. BOTIKAK BIDALTzea**

Aseguru etxeak kudeatuko du hil edo biziko garrantzia duten eta Aseguratu ospitalizatuta dagoen herrialdean lor ezin daitezkeen botikak aurkitu eta bidaltzea.

Eskatzen diren herrialdeko legeriaren arabera baldintzatuta geratuko da bidalketa hori.

Aseguru-etxearen erantzukizuna, dena den, amaitutzat emango da Espainiako Farmazeutikoen Zuzendaritzak edo Kontseiluak esaten badu behar den produktu hori ez dagoela Estatuko merkatuan.

Botiken kostua eta bidalketa aseguratuaren kontura izango dira.

#### **A.17. MEDIKUAREN BISITA ETA INFORMAZIOA**

Aseguratuak, bere bizilekua duen herrialdetik kanpora aurkitzen dela, Laguntza Berme honetan sartzen ez den laguntza mota medikoren bat eskatuko balu, aseguratuak:

- ◆ Aseguratuari ospitale edo mediku egokienaren izena emango dio.
- ◆ Mediku kualifikatu baten izena emango dio, gaixoaren egoera diagnostikatu eta diagnostikoa gaixoari eta bere familiari jakinarazi diezaion.
- ◆ Aseguratuaren eta medikuaren arteko itzulpena/interpretazioa egiteko sistema bat eskainiko dio.
- ◆ Bere laguntza eskainiko dio aseguratuari faktura medikoak ordaindu ahal izateko. Faktura horiek ordaintzeko erantzukizuna aseguratuarena izango da, ez beste inorena.

#### **A.18. ISTRIPU EDO GAIXOTASUN KASUETARAKO INTERPRETEA.**

Atzerrian izandako istripu baten edo gaixotasun larri baten ondorioz hori gertatu den lekuan interprete baten premia izango balitz, Aseguratuak konprometitzen da aseguratuaren esku interprete bat jartzera ahalik eta azkarren.

Estaldira honen kostua aseguratuaren kontura izango da.

#### **A.19. OSPITALIZAZIOKO IZAPIDE ADMINISTRATIBOAK EGITEKO ZERBITZUA.**

Aseguratuak arduratuko da Aseguratuaren Ospitaleko onarpena formalizatzeko egin behar diren izapide administratibo guztiez, horren premian aurkitzen bada poliza honetan estalitako arazoaren batengatik.

#### **A.20. ATZERRIRA BIDAIAK EGITEKO INFORMAZIO-ZERBITZUA.**

Aseguratuak, aseguratuak eskatuta, gai hauei buruzko informazioa emango du:

Atzerriko herrialdeetara joateko beharrezkoak diren txertoak eta bisitu-eskaerak, eta TIM (Travel Information Manual) delakoaren, hau da, IATA elkarteak aire-linea guztiek elkarrekin ateratako bidaiei buruzko informazio-eskuliburuaren azken argitalpenen azaltzen diren eskakizunak.

Aseguratuak ez du bere gain hartzen TIM eskuliburuaren azaltzen den informazioaren zehaztasunari buruzko erantzukizuna, ez eta argitalpen horretan izan daitezkeen aldaketek buruzkoa ere.

Munduan zehar dauden Espainiako Enbaxaden eta Kotsuletxeen helbideak eta telefono-zenbakiak, halakorik dagoen lekuetan.

#### **A.21. LARRIALDIKO MEZUEN TRANSMISIOA.**

Aseguratuak arduratuko da, aseguratuak hala eskatzen badiot, aseguratuaren familiartekoei larrialdiko mezuak bidaltzeaz, larrialdi hori berme honetan estalitako ezbehar baten ondorioz sortutakoa denean.

#### **B. EKIPAJEA:**

##### **B.1. BIDAIA AHAZTUTA UTZITAKO EDOTA LAPURTUTAKO OBJEKTUAK BIDALTzea.**

Aseguratuak bere gain hartuko ditu aseguratuak bidaian egondako lekuren batean edo gehiagotan ahaztuta utzitako gauzak aseguratuaren etxera bidaltzeko izapideen antolakuntza eta bidalketaren gastuak, 601 €-ko mugarekin.

Bidaian izandako lapurreta baten ondoren berreskuratutako objektuak ere berme horretan sartzen dira.

##### **B.2. AHAZTUTA UTZITAKO EDO GALDUTAKO EKIPAJEAK BILATU ETA AURKITzea.**

Ekipajeak galtzen direnean, aseguratuak bere laguntza emango du galdutako edo ahaztuta utzitako ekipajea bilatzeko kudeaketak egiteko.

#### **C. ERANTZUKIZUN ZIBILA:**

Aseguratuak bere kargura hartuko ditu Kode Zibileko 1.902tik 1.910era bitarteko artikuluen arabera eta atzerriko legeetan ezarritako horien gisako xedapenen arabera aseguratuari pertsona pribatu gisa eman behar ditzkien dirutako kalte-ordain guztiak, alegia, nahi gabe beste hirugarren batzuei, animaliei edo gauzei eragindako kalte korporal edo materialen erantzule zibila den neurrian eman behar ditzkionak. Estaldira honi dagokionez, 90.150 € arteko kalte-ordain muga ezartzen da ezbehar bakoitzeko.

Kanpoan geratzen da erantzukizun zibil profesionala, ibilgailu motordunekin ibili eta zirkulazteagatik sortzen dena, eta edozein eratako edo motatako tresnak eta armak edukitzeagatik edo erabiltzeagatik sortzen dena.

Estaldira honen eremua atzerria da, eta beraz, kanpoan geratzen dira Espainian gertatutako ekintza guztiak.

#### **KONTRATUAREN MUGAK. ESKLUSIOAK**

**Eskluduta geratzen dira:**

**1.- Lehendik datozen eta bat-batean larriagotzeko arriskua duten gaixotasunekin gaixotzea, ASEGURATUALEAK bidaia hasteko unean badituela dakienean.**

**2.- ASEGURATUAREN ZATZAGUNAK diren eta lehendik ere aurrekari medikoak dituzten egoera patologikoak, bidaietan okerrera egin dezaketenak.**

**3.- Haurdunaldiak. Hala ere, seigarren hilabetera arte, estalita geratzen dira aurrez ikus ezin diren konplikazioak.**

**4.- Odontologiako arazo larrien kasuan, halakotzat hartuz infekzio batengatik, minarengatik edo traumarengatik larrialdiko tratamendua behar dutenak, 60,00 € arteko muga ezarriko da, gehienez ere, gastutarako.**

**5.- Pertsonen erreskatea mendian, itsasoan edo basamortuan.**

**6.- Arrisku handiko kirolak, esaterako, mendizaletasuna, eskalada, moto-krosa, motor gabeko hegaldiak, delta hegala eta antzekoak.**

**7.- Eskiatzen ibiltzeagatik izandako istripuak.**

**8.- Gaixotasun kroniko batekin, edozein eratako protesiekin eta ur termaletako tratamenduekin lotutako gastuak.**

**9.- 9,00 €-tik beherako edozein gastu mediko.**

**10.- Suizidioak, autolesioak eta droga- edo alkohol-intoxikazioak.**

**11.- ASEGURATZAILEAK ez ditu inoiz ordeztuko larrialdietako sorospen- organoak eta ez du zerbitzu horien kostua bere gain hartuko.**

**12.- Hartutako Immunoeskasiaren Sindromearen, HIESaren, gaixotasunak, eta alkoholismotik eta drogazaletasunetik eratorritako arazo guztiak.**

**13.- Lehendik ezagutzen diren gaixotasunen kontrolak eta txertaketak.**

**14.- Ur termal eta UVA izpi bidezko tratamendu terapeutikoak.**

**15.- Fisioterapia eta kinesiterapia.**

**16.- Gaixotasun mentalak, eta baita psikoanalisi eta psikoterapia ere.**

**17.- Gerrako, gerra zibileko eta bahiketako arriskuak.**

**18.- Matxinada, iskanbila jendetsuak, terrorismoa eta sabotajea.**

**19.- Zerbitzu publikoak ez diren aireontzi pribatuak erabiltzea, baita fumigatzeko, suak itzaltzeko edo salbamenduko zerbitzuetarako helikopteroak eta hegazkin arinak erabiltzea.**

#### **BALDINTZA GEHIGARRIAK:**

**Ezbeharrak izanez gero, Aseguratzailerak errekamaziorik bakar baten kargu egingo da pertsona bakoitzeko, eta ez txartel bakoitzeko.**

Aseguratzailerak ez da izango ezinbestez edo beste batzuek ezarritako baldintzaz gertatzen diren atzerapenen edo ez betetzeen erantzulea.

Aseguratutako pertsonen desplazamendu-gastuei dagokienez, haiek normaltasunez aurreikusitako gastuen gainetik geratzen direnak bakarrik hartuko ditu Aseguratzailerak bere gain (tren eta hegazkinetako txartelak, itsas zeharkaldiak, etab.).

Aseguratzailerak bere betebeharrak erantzuteko, ezinbesteko baldintza izango da hari gertatutako eta kontratatutako kontingentzien berri eperik laburrenean ematea, eta hark, bere aldetik, bere adostasuna adierazita izatea, aseguratuari espediente-zenbaki bat emanez. Gastuen ordainketari dagokienez, frogagiriak (fakturak, ordainagiriak edo antzekoak) ikusi ondoren egingo du ordainketa, eta beretzat gordeko du aseguratuari erabili gabeko pasai-txartelak itzultzeko eskatzeko eskubidea.

Aseguratzailerak subrogatua geratzen da pertsonak beste hirugarren erantzule baten kontra izan ditzaketen eskubide eta akzio guztietan, bere kargura duen kostuaren muga arte.

Berme honetatik eratorzen diren akzio guztiak 5 urteren buruan preskribatuko dira pertsonen arriskuei dagokienez, eta 2 urteren buruan, kontzeptu materialei dagokienez.

Berme honen exekuzioaren inguruan sor daitezkeen eztabaida guztiak aseguratuaren bizilekua dagoen lekuko Auzitegien mende geratuko dira.

#### **ESTALDUREN PRESTAZIO-SISTEMA:**

Telefonoz eskatu behar da laguntza, honako datu hauek emanez: aseguratuaren zenbakia, poliza kolektiboaren zenbakia, zein lekutan aurkitzen den eta leku horretako telefono-zenbakia eta planteatu zaion arazoaren nondik norakoa.

**Telefono hauetara egin daitezke deiak:**

**Espainiatik telefono honetara: 902.100.728**

**Atzeritik telefono honetara: 34-91.594.96.74**

TXARTELA JAULKI DUEN ERAKUNDEAK BERETZAT HARTZEN DU EDOZEIN UNETAN ASEGURU HAU BERTAN BEHERA UTZI EDO ALDATZEKO ESKUBIDEA